



Julene Azeitia

Lehiaketa 2014

Ipuinak

Olerkiak

Bertsoak

Julene Azpeitia lehiaketa



2014. urtea

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



■
**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

■
*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2014. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1424-2014

2014ko azaroa

HITZAURREA..... 7

Andoni Iruarizaga Amantegi
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

IPUINAK

MATRAKA EGUZKI-SISTEMAN..... 11

Laida Aizpurua Larrinaga

ILARGI BETEA 19

Nerea Unzueta Jaio

AGURTU NAZAZU..... 27

Magali Camarero Pagonabarraga

NOIZBAIT, ALDE EGIN 39

Izaro Solozabal Azkarate

FAREWEL MY LOVELY 53

Iñaki Goitia Lucas

OLERKIAK

ILARGIA..... 65

Mikel Balerdi Iriarte

BURBUILATXOA..... 69

Irati Ruiz de Azua Olaso

ZINTA LARROSA 73

Leire Dudagoitia Mandiola

MATXINADAK..... 77

Aitor Bizkarra Ruiz

BERTSO PAPERAK

URTAROAK	83
<i>Maddi Barruetabeña Arroitauregi</i>	
CABACAS	87
<i>Peio Azkarate Elejabarrieta</i>	
LAGUN EZKUTUA.....	91
<i>Aitor Bizkarra Ruiz</i>	
KOSTALDETIK	97
<i>Aitor Albistur Pulido</i>	

hitzaurrea

Ongi etorri urtero hutsik egiten ez duen Julene Azpeitia lehiaketara. Udazkena behin eta berriro heltzen den bezala heldu da Julene Azpeitia ipuin eta olerki sorta ederra gure esku artean izateko aukera.

Irudi ederrak uzten dizkigu udazkenak. Hostoak jausten diren heinean zuhaitzak biluzik geratzen dira eta basoko bideak horiz eta laranjaz jantzen dira. Liburu honetan aurkituko dituzuen istorio xarmagarriek emozioez jantziko dituzte zuen bihotzak, irakurriko duzuen ipuin bakoitza altxor delikatua baita.

Ipuinei garrantzia gehiago eman beharra dagoela uste dut. Tresna baliagarriak dira irakurzaletasuna lantzeko. Horregatik, benetan pozten gara lehiaketa honek ume eta gazteengandik jasotzen duen erantzuna eta interesa ikusteaz.

Esan daiteke ipuinak irakurtzea abenturak bizitzea dela, irudimena, fantasia eta gozamina indartzeko bidea baitira. Ipuina aukeraz betetako altxorkutxa da, eta altxorra bailitzan gordeko dugu gure gogoan.

Goza ezazue aurtengo parte-hartzaileek dakartzaten istorioekin. Egiozue lekutxo bat zuen bihotzetan, eta murgildu zaitzete ipuinen mundu magikoan beldur barik.

Eskerrak bihotz-bihotzez antolaketan parte hartu duzuen guztioi, irakurtzeko grina duzuenoi eta, azkenik, istorio polit hauek oparitu dizkiguzuenoi. Zuen sentimenduak, gogoak eta desioak biluztu dituzue, eta ziur nago momentu oso atseginak pasatuko ditugula.

Datorren urtera arte!

Andoni Iruarizaga Amantegi
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

juleneazpeitia

lehia keta

2 0 1 4




Ipuinak



Laida Aizpurua Larrinaga

*Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean
Kurutzia Ikastola*

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Matraka eguzki-sisteman



Pluton haserre dago planeta kategoria kendu eta eguzki-sistematik bota dutelako. Beste barik, kanpora. Baina ez dagoenez konforme, batzarra eskatu du koadrilakoak izan diren zortzi planeta eta Eguzkiarekin. Hantxe daude beti zalantzan dabilen Merkurio, Artizar bakezalea, egunak eta gauak kantuan ematen dituen Lurra, Marte lotsatia, Jupiter harroputza, Saturno liraina, dena dakien Urano eta Neptuno asmatzaile zoroa.

Bilera hasi ondo hasi da, baina giroa nahastu egin da Saturnok hitza hartu duenean:

- Nik uste dut Pluton berriro onartu ala ez erabakitzeko botoa sekretua izan beharko litzatekeela.

Esaldia amaitu orduko, Jupiterrek:

- Sekretua? Hori mamalakeria!!! Baina zer espero daiteke gerrian hulahopak dituen batengandik?

- Ba nire uste apalean Saturnok proposatu duena egokia da; izan ere, gure sistema demokratikoa izatea nahi badugu, boto sekretua onartu beharko genuke -dio Uranok.

- Bla, bla, bla, bla, dena dakien papagaioak hitz egin du -erantzun dio Jupiterrek.

- Laaasai- dio Artizarrek -sistema bereko kideak gara eta ondo konpondu behar gara elkarrekin, ziur nago Lurra ere horrela pentsatzen duela, ezta?

Lurrak, nola ez , nahi duena eta kantuan erantzuten dio:

- Zenbat gera, lau, bat, hiru, bost, zazpi. Zer egingo degu, alkar jo: zer egingo degu ...

-Jo ez, jo ez, mesedez -Artizarrak.

Denbora aurrera doa eta planetak jo ta fuego ari dira elkarren kontra. Martek noizean behin zerbait esateko itxura hartzen du, baina hain lotsatia denez ez du ahorik zabaltzen. Merkurio berriz, marmarrean dabil, botazioa sekretua bai, botazioa sekretua ez, botazioa sekretua bai... Koitadua, zalantza argitu ezinik. Eta orduan Neptunoren ahots sakona entzungo da:

- Badakizue zer? Ni banoa itsasora. Han nire izena duen erregea bizi da eta bertara heltzeko espazio-ontzia amaitu dudanez, ez dut gehiago itxarongo nire ametsa gauzatzeko.

Bat-batean iluntasun totala. Eguzkia, ikusitakoak ikusita eta entzundakoak entzunda, itzali egin da. Akabo errotazioak, translazioak, kantuak, irainak, itsasorako bidaia... Eta gutxien espero denean Pluton ahots goxoak apurtuko du isiltasuna:

- Zer esaten du E.T.-k limoia jaten duenean?

Segundo batzuk eta gero Plutonek berak emango du erantzuna E.T.-ren berbakera imitatuz:

- Mikaaaaaatza!!

Bigarrenez historian leherketa gertatzen da unibertsoan; lehenengoa unibertsoa sortzeko Big-Bang-a izan zen eta bigarren hau barre-leherketa da. Eta barrearekin batera argia ere itzuliko da Eguzkia piztu egiten delako pozik dagoenean.

Planetak konturatu dira ezin dutela Pluton koadrilatik bota. Ez diote planeta kategoria emango berriro, baina Eguzki-Sistemako txiste kontalari nagusi izendatuko dute, eta hori errege izatea baino garrantzitsuagoa da unibertsoan.

ipuinaK





Ipuinak



Nerea Unzueta Jaio

*Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola*

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Ilargi betea



Ni Hilâl naiz, neskato arabiar bat. Hilâl izenak ilargi betea esan nahi du, izan ere, ni horrelako gau baten jaio nintzen, ilargiak gau iluna argitzen zuen eta basamortuko oasietan islatzen zen. Ile marroia daukat, basamortuko harrien antzera; begi berdeak ditut, aho gorria eta barre egitea asko gustatzen zait, nire hagin zuri eta handiak erakutsiz, azal iluna dut eguzkiak beltzitua; ez naiz oso altua nire adinerako; 9 urte ditut, eta 1 metro eta 20 zentimetro neurtzen ditut. Baina berdin dio nolakoa naizen, ezin baitut nire burua ikusi. Egunero niqab izeneko tunika bat janztera derrigortzen naute: ez dut zergatia oso ondo ulertzen, erlijioak agintzen duen zerbait dela esaten didate, eta betetzen badut ez zaidala ezer txarrik gertatuko, eta begiak bakarrik ikusten zaizkit, begi berdeak, eta nire irribarrea ezkutatu behar izaten dut, irribarre zabala, horregatik egunak gero eta ilunagoak egiten zaizkit, pixkanaka nire haginak gutxiago ikusten direlako, hagin handi eta zuriak.

Basamortuan bizi naiz nire familiarekin, denda txiki batean, nire ama, aita, bi ahizpak, anaia, osaba, izeko, eta bi lehengusuak, denak batera, baina ondo konpontzen gara. Bakoitzak betebeharrak batzuk ditu: niri adibidez, ur bila joatea tokatzen zait, eta nire amari aldiz, janaria prestatzea. Eta egunero lan horiek bete behar ditugu, bestela zigortu egiten gaituzte.

Gaurkoa egun normala da, beroa beti bezala, baina eguneroko ohiturei jarraituz uraren bila joan naiz eta zerbait arraroa sumatu dut: dena oso lasai dago. Normalean basamortutik zehar jendea ibiltzen da, gameluz, zaldiz, edo baita ere oinez, ni bezala ura lortzeko-edo. Egun honetan aldiz, haizearen doinu leuna eta lasaia besterik ez da entzuten, baina egia esan ez nau asko lasaitzen, urduritu baizik. Ahalik eta arinen joan naiz oasira eta arrapalada baten ura batu eta etxera bueltatu naiz korrika, ura ontziaren alboetatik jausten zaidala: ez dakit etxera urik heldu den.

Azkenean, ailegatu naizenean, ez dago inor dendaren kanpoaldean, eta bihotza arindu egin zaidala sentitu dut bularrean. Barrura sartu naiz bertan dauden ikustera, baina ez da oso ohikoa, gehienetan kanpoan geratzen baitira ni etorri arte, eta oraindik guztiz sartu gabe nagoela bihotzak eztanda egin dit, hain eztanda handia ezen bularretik irtengo zaidala sentitu dut; malkoak nire masail beltzaranetik erortzen hasi dira, malko izoztuak eta amorruz beteak. Atean geratu naiz, zutik, zer egin ez dakidala; korrika egin nahi dut, garrasi, baina badakit horrek ez duela ezer konponduko. Bat-batean nire amaren ahotsa entzun dut:

- Hilâl, entzun maitea, jarraitu ezazu zure bidea, norbait aurkituko duzu.

- Zer? -erantzun diot harrিতuta- baina ez dut erantzunik jaso.

Lur eman diet gorpuei aitona-amonekin egin genuen moduan. Horren ostean egin dudan lehen gauza niqab-a kentzea izan da. Aurpegia ikusi zait lehenengoz, aho zabala eta hagin zuri eta handiak. Ezer txarrik ez zitzaidala gertatuko esan zidaten, goiko jaunak babestuko ninduela, baita zera ere! Gezur galanta kontatu zidaten! Eta ibiltzen hasi naiz nora noan oso ondo jakin gabe, nire bideari jarraituz, uste dut. Pauso bat beste baten atzetik, horrela egunak eta egunak. Ibilbide beltza, ondoren grisa, eta azkenik zuria bihurtu arte. Orain egunak argiagoak dira eta irribarre egiten dut, nire irribarre zabala. Gauean ilargirik ez zegoela konturatu naiz, bera era goibel negar egitera joango zen.


Herrixka batera heldu naiz; oinak nekatuta ditut, gose naiz eta baita egarri ere. Aurkitu dudan lehenengo pertsonari janaria eta ura eskatu dizkiot, baina, begiratu eta bere bidea jarraitu du. Beste bat dator hortik, berriz ere saiatuko naiz:

- Jauna emango al zenidake janari pixka bat mesedez, gose naiz.

- Utzidazu bakean neskato! -esan dit garrasika-. Ez al duzu ezer hobea egiteko besteak molestatu baino? Jarrai ezazu zure bidea.

Non entzun nuen hori? “Jarraitu ezazu zeure bidea”. Ez naiz gogoratzen beraz, kasu egitea erabaki dut, berak ere horixe egin du eta aurreko gizonak ere bai. Oinez jarraitu dut beste pare bat egunetan beste

ipuinaK



herrixka batera heldu arte. Urrunean ura ikusi dut eta korrika hasi naiz ahal izan dudan moduan, oinetan min baitut, eta edaten hasi naiz. Puff, baina zer ur mota da hau? Garratza dago. Beharbada pozoituta dago. Hobe dut ezer gehiago ez edatea. Eta uraren gainean etxe moduko batzuk daude. Zer ote dira? Gainera igo naiz zer den ikustera. Baina norbait etorri da eta kaxa batean ezkutatu behar izan dut. Kaxa barruan geratu naiz ikusiko ote nauen beldurrez. Bat batean, mugitzen hasi da.

Ordu batzuk geroago berriz ere gelditu egin da, eta gizonen ahotsak entzun ditut. Ni nagoen kaxa altxatu dute eta beste nonbaitera mugitu dute. Hotsik entzun ez dudanean kaxa zabaldu eta irten egin naiz.

Baina non nago? Hau ez da lehengo herrixka! Oinez jarraitu dut harrizko bide batetik, eta aurretik zetorren kakalardoa bezalako gauza erraldoi batek harrapatu nau ia. Jende asko dabil kaletik. Janzkera nahiko arraroa dute denak, baina niri begiratzen didate. Gaua iritsi denean ilargi betea zuri-zuria eta biribil-biribila zegoen, eta nire familia etorri zait gogora, eta ilargi gabeko egun hori. “Jarraitu ezazu zure bidea”, eta orain hemen nago. Lo egiteko toki bat aurkitu dut eta hiru kontatu baino lehenago lo geratu naiz.



Ipuinak



Magali Camarero Pagonabaraga

*Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean
Kurutzia Ikastola*

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Agurtu nazazu



Egunon, arratsaldeon, eguerdion, gabon. Egia esan ez dakit zein aukeratu ere, zuk hautatu gustukoen duzuna edota ondoen datorkizuna. Izan ere, ni nagoen lekuan, hemen barruan, estu-estu, ez da ezertxo ere ikusten. Sekula, nire bizitza guztian, ez dut ezertxo ere ikusi, nire begi ñimiñoek ez dute ezeri begiratzeko aukerarik izan. Arraroa bada ere, nire bizitza hasi ere ez baita egin oraindik. Amak, Lander izenez ezagutu nahi nau. Aitaren iritzia jakiterik ez daukagu, ordea, aspaldi joan baitzen, ni gauza txiki ikusezin bat nintzen artean. Ez dut, beraz, bere oroimenik. Hala ere, behin baino gehiagotan entzun dut ama berari buruz izugarriak esaten. “Hau besterik ez nuen behar. Koldar alena! Beti ausartarena egin nahian, zertarako, e? zertarako? gauzak okertzean, bira eman eta arazoa atzean uzteko? A zer nolako gizon ausart eta prestua! Sar ezazu nahi duzun lekutik ausardi malapartatu hori! entzun? Zer egingo dugu orain zure haurrak eta biok? Bai, ondo entzun, duzu ZURE haurra!!!“ -bota zion, aitak telefonoz deitu zionean. Ez zuen gehiago berarekin hitzik egin, ez zuen kemenik ere hartarako. Nik barne-barnetik animatzen nuen, esanez, aurrera aterako ginela, hobeto biziko ginela bera gabe, horrelako pertsonak ez dutela gure bizitzan egoterik merezi, eta, batzuetan, galera irabazi bihur daitekeela.

Jada 8 hilabete eta erdi pasa dira ordutik. Nik hazten jarraitzen dut, eta amari ere hazi egin zaizkio gorputzeko zenbait atal. Jendeak kaletik gelditzen duenean, “Iratxe! noizko?” galdetu besterik ez diote egiten, edota, “ea zure begi berdeekin irteten den!”. Amak 23 urte izango ditu orain, ni heltzen naizenerako 24. Ez pentsa bakarrik gaudenik, ez horixe. Amona hor dago beti amak behar duenerako, baita izeba Naroa, amaren ahizpa ere. Amak arropa berria behar duela... hor doa izeba. Amak

medikuarenean hitzordua duela... hor doa Naroa. Izan ere, nire ama izango balitz bezala ari da bizitzen azken boladan. Izan dugun egoera dela medio familia osoa inplikatu behar izan da, eta honek emozioz bizitzea dakar ondorio gisa.

Atzo, amonarenera joan ginen ama eta biok. Ama platerkada bat dilista hartuta mahaian eseri zen, amonarekin hitz egiten zuen bitartean. “Nik ere berdina jan beharko dut ...“ pentsatu nuen nire golkorako. Esertzearekin bat amona Naroari buruz hizketan hasi zen:

- Ba al dakizu mutil batekin hasi dela?

- Bai ala? *¡No tenía ni idea!*

- Hala da, nola du izena?... Txomin! Txomin deitzen da. Ostegunean hona etorri zen Naroa arratsaldean, bisitatxo bat egitera, eta kafea hartzen zegoela zera kontatu zidan: mutil horrekin irteten hasia zela.

- Ba Naroak norbaiti kontatu baldin badio seriotan dabilen seinale.

- Izan daiteke. Pozik zegoela zirudien, alai, ez dakit...irribarre desberdin batekin...


- Maiteminduta, ama, maiteminak jota! Ni ere horrela ibiliko nintzen izenik aipatu ere egin nahi ez dudan tipo horrekin...

- Iratxe! Ez iezaiozu buelta gehiagorik eman, *ya es agua pasada*. Eta ados nengoen amonarekin, jada ez dago atzera bueltarik.

- Bai baina zaila da onartzea bere zati bat izango duzula betirako ondoan eta, nahi ez baduzu ere, bera ekarriko dizula gogora. Horrekin bizi behar izango duzula bizitza osoan, - adierazi zuen ia negarrez - horrek min egiten du, eta ezin daiteke saihestu.

Amona gure gainera etorri zen, eta besarkada bat eman zigun. Behintzat hala uste dut, zeren eta, mugitu egin nintzen. Ni oraindik ez naiz negar egiteko gauza, baina izango banintz, gela hartako guztioi begietatik negar-malkoak erortzen zitzaizkigula esango nuke. Horrela eman genituen pare bat minutu, eta, ondoren, isilean bukatu genuen geratzen zitzaigun bazkari apurra. Amak txamarra lodi batez estali ninduen, eta amona agurtuz etxetik irten ginen.

ipuinaK



Irteteaz bat, Naroari deitu zion telefonoz amak. Minutu bat itxaron ostean: “Naroa!, ni naiz Iratxe. Zera, libre al zaude bihar arratsalde? Zurekin hitz egin nahi dut... *perfecto*, seietan orduan. Non? Ba... nahi baduzu nire etxera etor zaitezke. Ondo da ba! bihar arte orduan.” Eta hortxe amaitu zen elkarrizketa. Gaur arte. Gaur izeba gurera etorri da, arratsaldeko seiak eta laurdenetan. Heltzeaz bat “berandu, beti bezala”, kexatu da ama irribarre eginez eta muxu bat eman dio bekokian. Niri ere muxu txiki bat eman dit izebak, eta ostiko ñimiño bat nabaritu dut. Poztu egin da.

- Eser zaitez Naroa, zerbait esan behar dizut. ..

- Zer da esan nahi didazun hori?

- Beno... Amak esan dit...

- Zer? Txominekin hasi naizela? Ba, bai horrela da, ez dizu gezurrik esan.

- Ez zaitez horrela jarri, mesedez. Ez pentsa ez naizenik poztu, baina... kontuz ibiltzea eskatu nahi nizuke, besterik ez.

- Ez Iratxe, ez, hau ez da alde egin eta bakarrik utzi zintuen hori bezalakoa. Zuk txarto aukeratu zenuelako besteek ez dute zertan gaizki aukeratu behar. Zorte txarra eduki zenuen, bai, baina denak ez dira berdinak...

- Denek ematen dute pertsona onak hasieran, hasieran denek laguntzen dizute etxera, denek egiten dute zuk nahi duzuna...Honekin ez diot gero denak direnik ume honen aita bezalakoak baina, Naroa kontuz, ez zaitez gehiegi fidatu.

- Ondo da, ondo da, hala ere, ez duzu zertan arduratu behar, gauzak kontrolpean ditut.

Ez dira konturatzen nik dena entzuten dudala, nahiz eta ezin dudan ikusi, ez ukitu, ez eta usaindu ere. Baina entzun... inork baino hobeto entzuten dut. Ama oso obsesionatuta dagoela iruditu zait gaurko gertakari hau entzun ondoren, oso minduta dago, oso kaltetuta, eta ez nau harritzen. Baina lasai ama, txarrena pasa da, laster ondoan izango nauzu eta nahi baduzu eguna negar batean pasako dut beste guztia ahantz dezazun, ados?



- Naroa, maite zaitut. Nire ahizpa zara, ahizpa txikia, eta onena nahi dut zuretzat. Ulertzen nauzu ezta?

- Noski. Nik ere maite zaitut.

“Baita nik ere!” esatea gustatuko litzaidake, baina inork ez lidake entzungo, beraz, zertarako xahutu energia hori? Laster behar izango dut indarra seguru asko, behintzat, bihozkada hori dut.

Gaur, azaroaren zazpian, arratsaldeko zazpiak inguruan, irten da izeba etxetik. Ama eta ni, joan gara atea ixtera. Komunera joan behar izan gara segituan, eta heltzeaz bat ama komunaren aurrean belaunikatu dela iruditu zait. Zarata arraroak egiten hasi delako konturatu naiz oka egiten dabilela. Orduan, lurrean etzan da, eta triku bat bailitzan hasi da kiribiltzen minaren ondorioz. Eutsi! Honek ni ondoan egoteko gutxi falta dela esan nahi du. Arrastaka joan gara sukalderraino, eta mahai gainean zegoen telefonoa eskuratu du amak. Zenbakiak markatzerakoan entzuten diren hotsak aditu ditut, eta amonaren ahotsa entzun dut beste aldean, “Iratxe, ondo al zaude?”.

Amak, lur jota, lurrean zabal-zabal eginda, ez du ezer esateko adorerik izan, “Iratxe! Zer gertatzen da?“, “Ama, deitu anbulantziari”, murririk dio azkenik. Horiek izan dira ospitalera iritsi baino lehen esan dituen azken hitzak.



Ospitaleko sala batean esnatu da, zenbait medikuz inguratuta. Arnona ondoan entzun dut, “Jainko arren! Ondo al zaude *mi vida?*” .

- Ez ditut hankak sentitzen...

- Bai, lokartu egin zaituzte gerritik behera, doktorearen esanetan oso ahul zaude eta zesarea egitea izango da onena. Haurra ondo dago.

- Eskerrik asko - xuxurlatu du amak.

- Egin behar nuena egin dut. Hobeto ulertuko dituzu nire ekintzak ordu batzuetara, txiki hau besoetan duzunean...

- *Tenemos que empezar* -esan du doktoreak.

Amak amasa sakon hartu eta “*Vale, adelante*” -baieztatu du.

Medikua, bisturiaren laguntzaz, ebaki bat egiten hasi da, orduan ikusi dut lehen aldiz zerbait, argi bat, urrunean, hotza, zuria. Ahotsak are argiago entzun daitezke orain... Norbaitek burua ukitu dit, latexezko eskularru batzuen azpian ezkutaturiko esku batzuekin. Gorputzeko beste atal batzuek ere eskularru horiek ukitu dituzte, kanpora atera baino lehen. Besoak zabal ditut, jada ez daukat oztoporik, ia bederatzi hilabetez eduki dudana gorputz-jarrera alda dezaket, eta ez da gutxi, “eutsi zuk bederatzi hilabete mugitu gabe!” Negar egiten saiatzen naiz, eta ez da zaila, entzunda baitaukat jaioberri guztiek egin dezaketen gauza dela. Amak liluraturik begiratzen dit, eta berarengana naramate, nik ere berari begiratzen diodala esan dezaket, azkenik: “*Ama, hemen naukazu jada, zure alboan baina zugandik kanpo, zure bizitzan zoriontasun pixka bat sartzeko asmoz, maite zaitudalako, ama*”.

Nahiz eta jaiota egon, ez naiz hitz egiteko gauza, beraz berari berba egiteko pixka bat gehiago itxaron beharko dudala uste dut. Hala ere, iritsi da itxaroten nenbilen unea, nire bizitza inauguratuta ikusteko unea, gaur, azaroaren zazpi honen amaieran, nire bizitza estreinatu dut.

Ipuinak



Izaro Solozabal Azkarate

*Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua*

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Noizbait, alde egin



Denborak aurrera darrai, eta bakarrik jarraitzen dut. Logelako edozein izkinatatik entzuten dut haizearen hotsa, haserre balitz bezala. Badirudi gaurkoan beste inoiz baino bortitzago jotzen duela, edozein zarataren gainetik. Hainbat burutapen datozkit burura, ezertan pentsatu ezin dezakedalarik: beldur naizela bakarrik dakit. Igogailuaren zarata noiz entzungo zain nago, eta etxean sartzean, baten bat atea ixten, baina ez, badirudi hori ez dela inoiz pasatuko, eta denbora klasea amaitzeko itxaroten dudana baino astiroago doa.

Ohean nago sartuta, mila manta gainean ditudala, flanelazko izara goxoekin, eta babestuta sentitzen naiz. Etxeko argi gehienak piztuta dauzkat: logelakoa, sukaldekoa, salakoa, korridorekoa eta komunekoa. Argi horrek ere babestu egiten nau, ilunabar beltz batean murgilduta egon baino argiekin egotea nahiago dut, seguruagoa baita. Bakardade honetan murgilduta hainbat pentsamen noragabe datozkit burura, eta horrela, imposiblea da lokartzea. Telebista ikusten joatea erabaki dut, baina orduotan, jada, tarot eta horren antzeko programak daude, beraz, berriro ere, nire kobazulora joatea erabaki dut.

Loak hartu nau jada, eta lokartzeko bi segundora egon naizela, gurasoak sartu dira etxean: giltzen zaratak berpiztu nau. Kristolako amorrua daukat, eta gainera, eztabaidatzen sartu dira, alkohol “tokea” dutela.

Askotan entzuten diet edozer tontakeriagatik eztabaidatzen, eta beti ni itzartuta nagoela egiten dute; beharbada, lo nagoela pentsatzen dutelako. Nik ez diet inoiz ezer esaten, eta isilik nire logelan murgilduta geratzen naiz, negarrez eta ahul. Noizbait bananduko direla entzun izan diet, baina inoiz ez dute hortik aurrera ezer gehiago egin, eta horrek lasaitu egiten nau, hori bai, oso gutxi.

Gaur ere betikoa gertatu da, eztabaidatu egin dute, eta ama haserretu egin da, eta ama ohera joan da, eta aitak sofan egin du lo. Pena apur bat eman dit, baina izarra dadila!, ikusezina naizela sentiarazten didate.

Bostak dira eta ernai jarraitzen dut. Bihar klase eguna da; ia nork altxatuko nauen bihar goizeko zortzietan, eta gainera, ingeleseko azterketa: hau bai egoera nirea.

- Egunon maitea! Klasera joateko ordua da, gosaria prest utziko dizut, ongi?

- Egunon...

- Dana ondo, Miren? Nekatu aurpegia duzu, zer, urduri azterketagatik, ala?

- Bai.

- Lasai egon, ikasi duzun guztiarekin gaintutuko duzu azterketa.

Ze arraiotan zabilta? Ez dakizu zenbat ikasi dudan. Ni ikasten egon naizen bitartean, zu kalean, lagunekin edo, auskalo non egon zaren.

Eta gainera urduri nagoela esaten dit, honek tuntuna naizela pentsatuko du edo, atzoko dena entzuteagatik dut aurpegi hau “maja”! Hori esateko gogo izugarria izan dut, baina ez naiz sentimenduak edota pentsamenduak esaten dituen horietakoa, nahiago dut isilik geratu.

Gaur Miren arraro samar ikusi dut. Klasera sartu denean triste aurpegia ikusi diot, eta geroago berarengana hurbildu naiz zer gertatu zaion galdetzera. “Ingeleseko azterketa nazkagarria” baino ez dit esan, eta buelta eman du, horri buruz hitz egiteko gogorik gabe. Nik, oster, begirada goibel horretan zeozer ezkututzen ari dela pentsatu dut, baina ez dut



galdezka jarraitu, hasieratik argi utzi didalako beste gauza batzuetan kontzentratu nahi duela.

Etxera heldu eta badirudi inor ez dela ohartu; bazkaria behintzat, mahaian prest daukat: porru-patatak eta solomoa. Aita eta neba sofan daude, biak lo. Aita gaueko txandetan dabil, eta horregatik egunez lo baino ez du egiten, eta neba ere ikastolatik bueltatu berri da. Agurtu ere ez naute egin: “Kaixo hemen nago! Existitu egiten naiz, batzuetan ahaztu egiten bazaizue ere!” Inork ez du hatzik mugitu.

Bazkalostean, sofan etzan naiz ni ere, telebista ikusten. Aita altxatu da, ez dit zelan nagoen ere galdetu; bere logelara joan, jantzi, dirua hartu eta joan egin da, “Agur, Miren” esanez. Geroago ile-apaindegira joan dela jakin dut, ekarri duen look berriagatik.

Entrenamendutik etxera heldu naizenean, aita lanean zebilen, eta ama eta Gartxot bere gauzetan ibili dira. Amarengana joan naiz eta afaria neuk prestatu behar dudala esan dit, berak ez duela denborarik izan. Beraz, gainerako familiak euren afari goxoaz batera gozaten dabiltzala, ni bakarrik nago eskatzean, sandwich misto bat prestatzen.

Gaur gauaz Miren etorri da etxera, gurasoak kanpoan daude-eta. Askotan joaten dira bidaian, eta inoiz ez dute Miren haiekin eroaten; amamaren etxera joaten da, baina gaur gurera dator. Heldu denean triste samar ikusi dut, gogo barik zetorren, baina gaua aurrera joan ahala pozago ikusi dut. Inoiz hegan egin ez duten txorien moduan baina bat-batean alai, biraka eta hegan hasten diren bezalakoxeak.

Mirenek txori bat dirudi. Batzuetan hegan egin ez dezakeen txori ezina, baina besteetan izarrak baino dir-dir handiagoa duena, kontraesana izan arren. Gaurko gauean adibidez, afaldu eta gero berriketan geratu gara sukaldean, bere begiek kolore aldaketa bat izan dute: orain alaiak dirudite, kontent dabilta.

Atzo Idoiaren etxera joan nintzen lotara. A ze ondo pasatu nuen! Kristolako barreak bota genituen, inoiz ez naiz hain ondo sentitu, aske eta zorionsu. Nituen arazo guztiak ahaztuta neuzkan, baina momenturen batean Idoiari egia kontatzeko gogoia etorri zitzaidan. Ez dakit zergatik,



baina une hori heldu zenean, hortik alde egin nuen, txoriek bezain arin, eta pixagura nuela esan nion. Bueltatu nintzenean, beste gai bati buruz berba egiteko, mutil kontuekin hasi nintzen. Ez dakit zergatik ez nuen berarekin horri buruz berba egin, orain pentsatuta, kontatu behar niola uste dut, baina egoera hartan lotsa edo sentimendu arraro bat nuen, eta brokel moduko bat jarri nuen, betiko moduan.

Hala ere, berarekin hizketan jarraitu ahala ahantzi egin nuen, eta beste gauza batzuei buruz ibili ginen: kuadrilla, institutuko mutil guapoak, gure etorkizuneko asmoak... badakizue. Eta ezin ahaztu musika topera jarri eta dantzan hasi ginenean, hori bai barregarria eta motibantea. Grabatu ere egin genuen, oso xelebrea eta aldi berean erridikulua baitzen. Azkenean, goizeko lauretan lokartu ginen, baina aurrekoa baino oheratzeko modu hobea izan zen.

Gaur armozatzen geunden bitartean gaua errepikatzeko geratu gara, ni irrikan nago.

Aita eta ama etxera heldu direnean kuartoan egon naiz, etxeko lanak egiten. Biak musu ematera hurbildu dira, eta ia gaua zelan joan den galdetzera. “Ondo” siku batekin erantzun diet: egia esan, biak besarkatzeko gogoia izan dut, aspaldidanik egiten ez dugun gauza baita. Horrez gain, hurrengoan haiekin joateko gogoia dudala esateko egon naiz, eurekin eramateko, irrikan nagoela oporretan joateko.

Berriro ere, ordea, isilik geratu naiz. Nire izaeran isiltasuna nagusi dela sentitzen dut. Musika, txalaparta, zurrumurru... honen barruan egon baino, askotan nahiago izaten dut ilargiari begira orduak igaro, edota olatuen mar-mar goxo eta zimur hori entzun, hura bai lasaitasuna.

Ez dakit zer egin. Zorionsua ez naizela ikusten dut, eta nire ingurukoak haien familiekin hain gustura ikustean inbidia apurtxo bat dut, bueno pitintxo bat baino gehiago. Bestalde, pentsatzen dut, bizitzen ari naizen egoera hau, apika, adinagatik izan daitekeela, edota agudo pasatuko den sasoi bat dela. Baina ez dut uste lagunek nire moduan egiten dutenik: dena ondo balihoa bezala jokatu: poz-pozik, eta berez barrutik erabat petraldurik egon. Haienak bezalako familia eta bizitza izan nahi ditut. Gaur, adibidez, Filosofiako klasean, familiari buruz hitz egin dugu,

zenbat maitatzen dugun, eta esker onekoak garela hura edukitzearren. Negar malkoren bat isuri dut, baina inork ikusi baino lehenago kendu dut, ez baitzait gustatzen jendeak negar egiten ari naizela ikustea, eta egoera horretan gutxiago. Denak galderak egiten hasiko ziren-eta.

Kontua da zorientasunari eta bertuteari buruz hitz egiterakoan, denek familia eta ingurukoak aipatu dituztela. Nik, ordea, ez dut hori pentsatzen; eta horregatik, askotan, beharbada, alde egitea onena izan daitekeela uste dut.



Ipuinak



Iñaki Goitia Lucas

Irabazlea 18 urtetik gorakoan sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Farewell my lovely



*“Heriotzari adoretz egin behar zaio aurre.
Eta ondoren kopa batera gonbidatu.”*
Edgar Allan Poe

Hotz begiratu eta zera esan dit: “Gure artekoa amaitu da”.

Behera begiratu du ondoren, lurrera. Hotz dago hura ere, nire oin-zolak dira erakusgarri garbia, horiexek ene gorputz biluztuan hotz aurki ditzakedan atal bakarrak ziurrenik, bero-bero dago gainontzekoa. Hala izaten da larrua jo berritan.

Gaurkoan gainera benetako su artifizialak sortu dira gure gorputz biluztuen arteko talka neurrigabeen. Are gehiago, gorputz izerdituen arteko gatazkaren harrabotsean ez gara bizilagunen loaz arduratu eta gerora komeriak izango dira haietariko norbaitekin topo egin ezker. Ez arduratzeko dio, bizilagunik gehiago ez omen dut ikusi behar, ez omen baita gerorik egongo. Ez niretzat.

Ez dut ongi ulertu, edo ez dut ulertu nahi izan. Guztiarekin ere, kontua da inoiz baino sutuago jardun garela, eta horrexek berak ulertezinago egiten du gure arteko haustura. Niri hala iruditzen zait bederen.

Baina gorrotoa zama bat da...

Jarraian leiho ondoan dagoen aulkira jo eta gabardinatik pizgailua atera du. Klask! Klask! Ez zaio pizten. Klask! Klask! Klask! Gasik gelditzen ez zaiola dirudi. Birao bat bota eta klask! piztu du azkenerako.

Zupada amaigabe bat eman dio zigarroari, berau kontsumitzen doanaren hotsa aterezaz. Askotan liskartu gara bizio honen kaltearen inguruan, ohean adiskidetzen gara berriro, ordea. Beste zigarro bat piztu ohi du bukatzeaz bat. Berehala liskarra dakar honek, oheak berradiskidetzea. Ohiko zigarroa ondoren... espiral baten preso gaudenaren sentsazioa izaten dut askotan. Zertarako baina? Agian arrazoi izango du bera kaltetzea guztiz ezinezkoa dela dioenean. Nik neuk, behinik behin, itxura berbera ezagutu diot beti; erabat makurra eta gaizbera, egia esan behar badut... inoiz maskaltzen ez den itxura makur eta gaizbera. Zoragarria!


Leihotik at so egiten dihardu, bere gorputz biluztua agerian utziz, denen ikusgai, ikusiko dutenaren ardurarik gabe, edo ikus dezaten hain zuzen ere, batek daki!

Zupada bakoitza sakonki hartzen du, ni amorrarazi guran edo, nire aurrean hartzen dituen azkenak direlako, beharbada; gure amodio istorioaren adierazgarri garbia. Izan ere, amodio gazi-gozoa da gurea, inorena izatekotan. Azkenaldian, alabaina, oheak soilik izan du gozotik, gazitik beste guztiak.

Baina gorrotoa zama bat da... suminean ondoratzen gaituen zama, basamortuan alderrai ibiltzera bultzatzen gaituena.

Gorputza hotz izaten duela? Ezpainak morantz askotan, zurbil gehienetan? Begirakunea izotz-puska baten parekoa? Bost axola hori guztia. Une oro bere hoztasuna gesaltzen saiatzen naiz ene gorputzaren berotasunarekin. Orain arte xedea bete dudalakoan nago, aldamenean izan dudan heinean.

Gaurkoan ordea, hutsen bat egin behar izan dut, inondik ere. Huts barkaezina bistan denez. Barkaezina eta garestia oso, gure gorputz kartsuek eragindako su artifizialen ikuskizuna gogoangarria izan den arren. Agian hor egongo da gakoa, hain zuzen; su artifizialak gure maitasunaren amaierako traka gisa irudikatzea. Izan ere, hutsune berbera sentitzen da bi kasuetan, zein azken trakaren bukaeran zein adioaren hitz mingotsetan, behinola amaren babesetik askatu gintuen zilborrestearen ebaketa bailitzan, babesgabe, hutsal, zaugarri amildegiaren ertzean.



Begirada leihotik bestalde du oraindik. Nirekikoa eginda, beste norbaiten bila dabilenaren irudipena dut. Agian bihotza atera beharrean, harat-honat presaka dabilen hori du dagoeneko begiz jota, bastoiaren laguntzaz kili-kolo dabilen beste hura akaso, ospitalera daramaten gaixoa ote bere hurrengo maitalea? Ez dut bere aukeraketaren egokitasuna zalantzan jarriko, ez horixe, betidanik izan du horretarako sen berezi bat.

Orain arte nirekin egin duen legez beste askorekin egingo du amodioa aurrerantzean. Izango ditu liskarrak haiekin ere, ez dira faltako momentu goxoak, dena den. Gure artekoaz oroipen berezia gordeko ote duen galdezka nago oraintxe, ez naiz ausartzen, baina, galdera kanporatzen, horren isila da bera... Hitz-urriak diren pertsonen esaldiak sententziak dirudite, aitzinean nahiz ondorenean isiltasunak babesten dituelako, beharbada. Askotan isiltasun hau apurtzearen errudun sentitzen da bat, esandakoaren ondoren barkamena eskatzera behartuta balego bezala.

“Gure artekoa amaitu da”. Ez du besterik aipatu, eta behin eta berriro darabilzkit hitzok barrunbean, zentzua galtzeraino, eufemismo inozo bat bihurtzeraino. Izan ere “Gure artekoa amaitu da” esaldiak “Gure artekoa amaitu dut” esan nahi du. Edo “Gurea amaitu dut”. Edo “Zurea amaitu dut”, besterik ez. Hau da, “Zurekikoa egin dut”, eta azken finean, “Zureak egin du”, horrela, soslai, erantzukizuna saihestuz. Zer ezberdintasun dago bada “Gure artekoa amaitu da” eta “Zureak egin du” esaldien artean? Zeren harremana hasi bion arteko adostasunez hasi genuen, haustura ordea, bere kabuz erabaki du. Bi behar dira harreman bat abian jartzeko, bakarra eten ahal izateko. Justizia itsua omen da... baita gor eta mutua ere, antza.

Baina gorrotoa zama bat da... suminean ondoratzen gaituen zama, basamortuan alderrai ibiltzera bultzatzen gaituena. Eta ni ahulegi nago zama hori guztia bizkarreratzeko.

Azken zupada sakon baten ostean hautsontzian itzali du zigarrokina, gure arteko suaren irudikapen gisa, azkeneraino hurrupatua. Gabardina beltza jantzi eta harea-erloju bat atera du bertatik. Ohe alboko mahaitxoan utzi du irteerarantz abiatu baino lehen. Ateaz bestalde sega bat du jarria, heldulekutik zintzilik, gure intimitatearen bermatzaile, bere

esanetan. Erromantikoa ez baina aitortu beharra dut “Ez molestatu” jartzen duen ezein kartel baino eraginkorragoa dela. Azkenik txanoa jantzi du, — zeruan hodei bakarra ageri ez den arren—, eta danbada batez itxi du atea.

Farewell My Lovely, 70ko hamarkadan estreinatutako film hartan bezala, edo zuzenago mintzatze aldera, 1940an Raymond Chandler-ek argitaraturiko nobela beltz hartan bezala; Philip Marlowe, Moose Malloy, Velma Valente... baina hau ez da Los Angeles, eta ni ez naiz ez detektibea, ez erraldoia ezta neska ilegorria ere... aitzitik, denbora oso gutxira ezereza izatera behartuta dagoen dohakabea baino ez. Errealitateak beti gorde ohi du ezpainetan porrotaren zapora mingotsa.

Baina gorrotoa zama bat da... suminean ondoratzen gaituen zama, basamortuan alderrai ibiltzera bultzatzen gaituena. Eta ni ahulegi nago zama hori guztia bizkarreratzeko. Guztiarekin ere, maitasunak maitasuna badakar gorrotoak gorrotoa behar du ekarri.

Segundo batzuk izan ditut atean begirada paratua, harea-erlojua han uztea halabeharraren ahanzte bat izan eta itzuli egingo denaren itzaropenarekin; betidanik izan dut naif samarra naizenaren ospea.

Bat-batean baina, balirudike errealitateak nire desiraren aurrean amore eman duela, ate-kolpe lehor bat entzun ahal izan baitut. Berehala jo dut



atea zabaltzera, baina inor ez da ageri bestaldean. Isiltasuna soilik. Eta iluntasuna. Eta eromena... eta gorrotoa.

Baina gorrotoa zama bat da... suminean ondoratzen gaituen zama, basamortuan alderrai ibiltzera bultzatzen gaituena. Eta ni ahulegi nago zama hori guztia bizkarreratzeko. Guztiarekin ere, maitasunak maitasuna badakar gorrotoak gorrotoa behar du ekarri. Eta nik hura gehiegi maite izan dut orain ez gorrotatzeko.

Bizitza oso baten trinkotasuna sentiarazi didan segundoa alde batera utzi eta harea-erlojuan erreparatu dut supituki, harriduraz ohartu ere berau azkenetan dagoela. Zirgit egiten duten hotzikara horietako bat pairatu dut azken hondar alea erortzen ikusi bezain laster.

Zerraldo erori naiz lurrera. Batek daki gorrotoaren zama dela eta...

Memento mori

Olerkiak



Mikel Balerdi Iriarte

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Ilargia



Gazta zati bat zirudien
Biribila eta horixka
Baina ilargia zen
Beterik eta zurixka

Izarren lagun
Gauaren jabe
Eguzkitik urrun
Gizotsoen kide

Egunero da desagertzen
Baina inoiz ez da joaten
Bera baitabil eta
Beti gu zaintzen



Olerkiak



Irati Ruiz de Azua Olaso

Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean
Kurutzia Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Burbuilatxo



Burbuila bat naiz,
zu hurbiltzen zarenean:
Plof, plof, plof eta plof
egiten duen burbuila bat.
Lotsati, lotsati! zu zara kakati!
Esaten didate lagunek.
Eta nik esaten diet:
"Lotsatia izango naiz,
baina zu lotsagabea izango zara!"
eta kontatzen hasten banaiz...
1, 2, 3, 4 lagun ditut,
5, 6, 7, 8 pertsona maite ditut
9, 10, 11, 12 pertsona ezagutzen ditut,
13, 14, 15, 16 ume eduki ditut nire eskuetan,
17, 18, 19, 20 aldiz egin dut gaur barre,
21, 22, 23, 24 aldiz esan dizut maite zaitudala,
25, 26, 27, 28 aldiz erantzun didazu beste bat duzula zure ondoan
30, 31, 32, 33, aldiz esan didazu hau buruz ikasteko:
Kolore, kolore, ze kolore?
Kolore gorria oparitzen badidazu:
Ez duzu muxurik lortuko,
kolore berdea ematen badidazu:
ez duzu nik zu maitatzea lortuko,
Kolore urdina oparitzen badidazu:
Plof, plof plof eta plof egiten jarraituko duzu,
Eta ostadar bat oparitzen badidazu:
Plof egiteari utziko diozu,
ilargi betea bezala maitatzea lortuko duzu,
muxu bat lortuko duzu,
Eta nahi duzun guztia lortuko duzu!



Olerkiak



Leire Dudagoitia Mandiola

*Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean
San Antonio – Santa Rita ikastetxea*

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Zinta Larrosa



Gogoan dut lehengo egun hura
Beldurra ematen zidan ospitale hartara joan nintzenekoak,
Amak lasai egoteko esan zidan
Eta ni gazte zoro bat nintzen.
Bertan jabetu nintzen
neska buru arin bat izatetik,
heldutasunera pausu handia emango nuela.

Gogoan ditut
Nire ohe ertzeko leihotik
Pasatzen nituen egun aspergarri haiek
Laino izan nahi nuen,
Munduko edozein lekutara joateko,
Lau horma haietatik
Askatasun bila irteteko.

Edozer emango niokeen
Minbiziaren jabe egin ninduenari,
Jainkoari, agian, deabruari, agian,
Nire arima ere emango niekeen.

Baina nire patua huraxe zen
Nahiz eta jausi
Indartsuago altxatzen nintzen.
Nire goizeko negar malko bana
Itsaso haserretua bihurtu zen
Aurre egin behar nion egunari.



Gogoan dut
Operaziotik irten eta gero
Nire bularrak bendaz batuta zeudela
Orduan jabetu nintzen
Sinistu nahi ez nuen hura
Benetan gertatu zela.
Betirako eraman zidatela
Nire bizitzaren zati zena.

Zorionez, minbizia gainditu dut
Baina ispiluaren aurrean begiratzen naizen bakoitzean
Bihotzaren parean daukadan orbana laztantzen dut
Nahiz eta bularrrik eduki ez
Ederra sentitzen naizelako.

Olerkiak



Aitor Bizkarra Ruiz

Irabazlea 17-18 urte bitartekoan sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Matxinadak



- I- Hausnarketa matxinatuak
- II- Iraultza eta tximeletak
- III- Azken matxinada

Nago, tximeleta bat zela...
Bai, tximeleta bat,
bere koloreak eman zidan zer pentsatua,
piztu egin ninduen,
sutu,
hargatik, gaur barrikadaren alde honetan nago.


I- HAUSNARKETA MATXINATUAK

25 urteko mutil gazteaz:
25 urteko mutil gazte bat
atxilo hartu dute
neska amorantea jipoitzearren.
Beste giza-zabor bat
alfonbrapean ezkutatua
garbiketa nagietan bezala.

Gizon-emakumeez:
esan zuen
Foulcault-en lagun erradikalen batek
“lesbianak ez gara emakumeak!”
berunezko molde bat
moldatuaz.
Lasai,
epai zaitzatetela:
zuek, utopikoak,
ez zarete gizon-emakumeak.

II- IRAULTZA ETA TXIMELETAK

Euri fina ari du,
baina astuna,
kriseilu hormari atxikiaren pean elur malutañoak iduri.
Nahiz eta euria eta bera norantza kontrakoan joan,
intsektu urdinxka baten hegaldi etengabea (tximeleta dateke)
sinesgarritasunez kamuflatu daiteke jasa lotsatian.
Nola iraultzaile gazte baten asmoa
bere kontraesanetan gora
egiten saiatuz.
Nola Günter Anders pazifista zaharra
biolentzia defendatuz,
defentsa zilegi
den heinean.
Euri honek ez dager gelditzeko asmorik,
tximeletak ere ez,
nahiz eta euri fin-astunak (nola balak airean,
fin eta astun) bere hegalak zaildu.





III- AZKEN MATXINADA

Matxinatu bekio Dionisos Apolori,
matxinatu askatasun hordia neurritasun formalaren akuiluari.

Matxinatu bekizkio herritarrak estatuari,
matxinatu emakumeak patriarkatua den jaiotzetiko txertoari.

Matxinatu bekio hegoa iparrari,
matxinatu haizezko hegoa porlanezko hankari.

Matxinatu bekio matxinadaren beraren izpiritua den kaosa kosmosari,
matxinatu gezur propioa egia absolutu pulpitu usaindunari.

Eta matxinatu bekizkio pertsonak jendeari
auto-triskantzaz kontziente,
plazer oro, funtsean, auto-triskantzatik eratorria dela jakinik;
eta beltza zuriari
matxinatu bekio.

Jaurti diezazkiegun liburuak telebistei
beingoan hitzak matxinada izan daitezen.



Bertsio paperak



Maddi Barruetabeña Arroitauregi

*Irabazlea 11-12 urte bitartekoan sailean
San Antonio – Santa Rita ikastetxea*

julene azpeitia lehiaketa • 20014 urtea



Urtaroak



Udaberria dator
ondo pasatzeko
milaka lora sortu
ingurua apaintzeko
gogoz itxaroten degu
argia ikusteko
hainbeste hezetasun
behingoz lehortzeko

Eguzkia agurtzen
duen urtaroak
eskolara bueltatuz
badatoz beharrak
alde batetik poza
bestetik negarrak
zoritxarra benetan
amaitu oporrrak.

Negua izanda ta
gogorra benetan
hotzak apaltzen gaitu
momentu honetan
euria ta euria
aterkinak bertan
birritan apurtu zait
haize boladetan.



Bertso paperak



Peio Azkarate Elejabarrieta

Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 20014 urtea



Cabacas



"Martxa baten lehen notak" doinua.

Egun horretan gertatu zena
ez gertatzeko berriro,
noizbait deskubrituko ditugu
Ertzainen hainbat kodigo,
Infernu horren deabru asko
bilatzen gabiz astiro,
injustizia izan liteke
egoeran substantibo.

Athleticen jaia bihurtu zen
gaba hortan odolgiro,
egun haretan entzuten ziren
behin ta berriz hainbat tiro,
oroitzen dugu ekain ta otsail
abendu eta urriro,
bi urteren ostean herriak
oroitzen zaitu Iñigo.

Kontatuko dut gaba hortako
berbaldi euskaratua,
Ertzain batek komentatu zuen
"dago giro lasaitua",
Ta segituan berari helduz
nagusian aholkua,
"entrar con todo" ez zegolako
kalean iheslekua.

"Ta zer arraio ez da mugitzen
lurrean dauen gorpua",
"Baina zu trankil bera dagola
gutziz zorabiatua"
Polizia bat punteriagaz
egoten da prestatua
Orduan buruan ematea
ez zen izan istripua

Istripua edo nahita einda
zein izango da egia,
argi dago hilketa bat zela
Iñigon gertakaria,
orduan nor dugu benetako
"herriaren zaindaria"?
Kale alaiak ematen zuen
herriaren hilobia.

Urraturen bat bazuen baina
alaia zen gure hiria,
baina egun latz horren ostean
zauri dira alegia,
egurra eman ta zapalduz datza
polizi estrategia,
ta horregatik bete duzue
min ta odolez zauria.

(Urte asko geroago...)

-Aitite historia kontatu
nabilela ni eskean,
urte askotxo pasatu dira
ta nabil jakin-minean,
Iñigo horren istori hori
ahaztuko zu azkenean,
ta badakit hil egin zutela
partidutik bueltatzean.

-Gogoratzea hobe duzu
zuk nik kontatu bitartean,
arrazoi duzu bera hil zuten
partidu baten ostean,
denbora asko pasatu da ta
dago nire bihotzean,
zure adina nuen oraindik
Iñigo hil zutenean.



Infernua bihurtu zitzaigun
Basurtoko itxarongela
Atsekabea bihurtzen baitzen
Poztasunaren kartzela
Zenbat negar malko isurita
Zenbat lore ta kandela
Nire lagunek zelako mina
Ikustean nire eskela

Nire hilketa ez da futbola
hori baino gehio dela
ez begiratu beste aldera
hemen zuen zain gaudela
Hilketa bat izan ez bazen
Zer izango zen bestela
Argi daukat ni hil ninduen
Hiltzaile bat izan zela

Bertsu paperak



Aitor Bizkarra Ruiz

*Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua*

Julene Azpeitia lehiaketa • 2014 urtea



Lagun ezkutua



Beti izan naiz seme kutuna,
familiako txikia,
normaltasun eta zintzotasun
kontzeptuei atxikia.
Baina ez da aitzakia.
Izan nadin gizakia!
Bizitzak izan behar baitu nork
bere eskuz eraikia.
Jada utzi dut nik ia
nire amaren titia:
13 urtekin ezagutu dut
nire arimaren bikia.

Nire lagunen galderak ezin
daitezke atzamarrez zenba
“zer egiten du zure lagunak
behin zure etxetik irtenda?”
Nik esaten diet “Em, ba...
beteta dauka agenda”
baina nik ere ezdakit ondo
bere ekintzen zerrenda
“zatozte etxera benga,
mesfidantza hori senda”
baina aurkeztu nahi diedanean
ezkutatu egiten da.

Denbora askoan izan ez arren
gu elkarren ezagunak,
nigatik bere bizi osoa
emango luke tuntun hark.
Izatearen hutsunak
ulertuz gero zentzunak,
ezertarako ez du balio
ikusiak ta entzunak.
Batzen gaitu maitasunak,
batera igaro dugunak.
Nire gelako leihotik sartu
zenetik gara lagunak

Eskolakoek etxera deitu
zuten ta ez zeuden lasai,
antza hormarekin elkarriketan
ikusitako ninduten alai.
Ba, ni askatasunez blai
sentitzen naiz, txori deslai,
nahiz ta arrotza sentiarazi
nire amatxok ere bai
“ez naiz hau ulertzeko gai
ta ez nazazula gogai”.
Ez dute ezer ere ulertzen
ez baitute ulertu nahi.

Psikologoen kontsultak dira
atsekabeen txokoa,
zerbait polita entzun ta gero
a ze belarrondokoa.
Nire egoera tipoa
dio dela tipikoa
“irudimenaren poderioz
barnean ernetakoa,
fase bat umetakoa”.
Sasikume halakoa!
Orduan, aitak zergatik diost
ez dela benetakoa.

Barnean erne zaidan bakarra:
erein didaten tristura,
erraustu arte ni ta laguna
batzen gintuen joscura.
Atzo zen azken bilkura,
berak ez zuen hil gura,
esan zidana idatzi nahi dut
bihur ez dadin ahanztura
“nire zain da abentura,
banoa mugarik muga
nire egian ta fantasian
maiteko nauten lekura.”



Bertso paperak



Aitor Allistur Pulido

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

julene azpeitia lehiaketa • 20014 urtea



Kostaldetik



Doinua: “Nere amak baleki”
(7 puntuko bariazioa)
“KONTZERTINA”

Nola bitzta eman
zigun Nigerian
aspaldian gehienok
geunden miserian,
murgildu ginen, ezin
zelako segi han,
sari gutxi banatzen
duen loterian...

*Lehendabizi pateran,
gero igerian,
gabezia guztiak
zeuden agerian.*

*Lehendabizi pateran,
gero igerian,
arrain galduak ginen
itsaso erdian...*

Olatuen baitako
itsaso zakarra
izanagatik oso
bidaide kaskarra,
gidari genuela
gaueko izarra,
bistaratu genuen
kostaldeko marra.

*Parez pare topatu
arren hesitzarra
gainditzeko oraindik
geneukan indarra!*

*Parez pare topatu
arren hesitzarra
ez zen gainditu behar
zen hesi bakarra...*

Eskuak odolduta,
zauri sakon pila,
gihar denak indarge,
aurpegi zurbila
dituena, bizirik
dagoenez hila,
errukirik duena
erruki dadila!

*Europara ate bat
nahiz zaren Melilla,
ze giltzari krudela
den Guardia Zibila!*

*Europara ate bat
nahiz zaren Melilla,
zuregana nor dator
laguntasun bila?*

Iristerako oinak
lurrean jartzera,
nola jadanik ezin
zen egin atzera,
nahiz tiro hotsak heldu
belarri ertzera,
ezin ginen berriro
itzuli etxera...

*Korrika hasi ginen
batetik bestera,
burua moztutako
oiloen antzera!*

*Korrika hasi ginen
batetik bestera,
izuaren mundua
den noraezera...*





Atxilotu ostean
gela umel urdin
batean sartuz gero,
zahar nahiz gazte berdin,
hotzak tragedia bat
ez dezan eragin,
manta baten beroa
nork ez du atsegin?

*Gure sufrimendua
luzatu ez zedin
andre hark egin zuen
hamaika ahalegin.*

*Gure sufrimendua
luzatu ez zedin
inork ez du sekula
horrenbeste egin!*

Lehenago etorrien
jakintza bitarte
gure bizipen denek
tristura dakarte,
baina gertatzen dena,
entzunaz aparte,
ez dugu jakin bizi
izan dugun arte.

*Garbi dago, Europan,
afrikarron kalte,
etorkinak bakarrik
trabatzat gauzkate.*

*Garbi dago, Europan,
afrikarron kalte,
zakurrek eskubide
gehiago dauzkate!*

Bizitza bilakatu
zitzaigun ziegan
patuak bidaia hau
nahiz jarri aukeran,
esperantza oinarri
zuen haseran,
etsipena bihurtu
zaigu amaieran...
*Leihotik ikusten den
txoriaren eran*
migrari izatea
daukagu guregan.
*Leihotik ikusten den
txoriaren eran*
guk ere aske egin
nahi genuke hegan...

Mundu hipokrita hau,
biratik birara,
nola ez den portatzen
dioen gisara,
duda hurreratu da
guztion baitara:
hau beharra ez bada,
gurea zer da ba?
*Melilla edo beste
edozein kostara*
bizirik iristea
ederki kosta da!
*Melilla edo beste
edozein kostara*
ahal dugun bezain pronto
itzuliko gara!